


MERKATUAREN SEGMENTAZIO MOTAK:

Gure produktua publiko zehatz batean oinarritua dago, Alzheimerra eta antzeko beharrak edo arazoak dituzten familien taldeentzako alegia. Gure produktua hain segmentatua denez, publiko berezi bati zuzendua dago, Alzheimer eta beste gaixotasun batzuk dituzten pertsonentzat sortu dugu robot hau.

Arazo hori, hau da, Alzheimerra duten pertsonak eta beraien familiak izango dira gure bezeroak. Hasieran 50 pertsonaz arduratzen hasiko gara eta ondo goazela ikusten badugu, pertsona gehiagorentzat sortuko dugu. Familiekin bilerak egiten joango gara gaixotasunaren aurrerapenak nola doazen jakinarazteko.

ALZHEIMERRAREN GARAPENA HILABETEETAN ZEHAR:



Ikusten duzuen bezala, lehengo grafikoak adierazten duena urtearen lehengo hilabeteetan, hau da, urtarriletik ekaina arte bezeroak gure robota erabiltzen duen garapena da. Azaltzen diren bi marra horiek bi pertsona irudikatzen ditu eta ikusi dezakegu ez dutela Alzheimer berdina dabera. Urtarrilean ikusi dezakegun bezala, bi pertsona horiek nahiko antzeko mailan hasten dira, baina, hilabeteak aurrera doazen heinean, garapen handi bat nabari da eta hori gure robotak ematen duen laguntzari esker gertatzen da.